

dizkiyotela itz-irakuñi ezin diranak; beste batzuek, len argitaratutakoak; beste batzuek beriz Azkue'ren Iztegian daudenak: adierazi bear zaye bialtzaileai ez dezatela alpeñikako lanik egin ta emandako arauz, beren lana datorkigula.

III.—Kampion jaunaren eskabidez ta Euskaltzaindiari ongi iritzi-ta Urgazle izendatu degu, euskeraren alde ainbeste egiten duen Migel Intxaufondo jauna.

IV.—Olabide jaunak esan digu: Azpeiti'ko misiyotan, Aita Agiré'k euskerazko dotriña-ikasbidearen alde'z itz egin duela, esanik, naita naye'zko garatza dala, euskeraz erakustea, euskera besterik ez darabilkiten umeari. Euskaltzaindiaren txaloak aita Agiré'ri.

V.—Azkue jaunak *Epéntesis* dala-ta, idazki bat irakuñi digu: iru atal ditu lan onek; *epéntesis*: de *composición—de declinación—de conjugación*. Gero diyo, sartaldeko euskera, lenbizikoz, osatu bear litzakela; bañan Urkijo jaunak erantzun diyo, ez dala orixe akets eta eragozpen gabeko arazoa ta gerorako uzteko.

VI.—Urkijo jaunak, antziñabo idazkiyetan itz abek idoro ditu: *txaginar*, *aragoa*, *aizearka*, *lixa*, *negila*, *gabitegi*: Itz abek Euskaltzaindiak aztertu ditu.

VII.—Aita Intza'k Goizueta ta Aranoa'ko aditza irakuñi digu.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta ototzez amaitu da batza'aldi au.

---

Iruña'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Otsaila'ren  
25'an.

Aur'eko batza'aldian aipatu diran euskaltzain jaunak eta urgazle bera bildu dira ta ototzez asi da batza'aldia.

I.—Etxegarai jaunak antziñako Napañoa'ko *Fuero*-tik ateratako itz euskaldunak bere lan batean dakarzki ta ederki aztertu ta ezaguarazi dizkigu: *Azageriko, Etxajaun, etxaun, etxayaun, txandra, etxandra, Gayola, Gaizez, Berme, Onez, Giriyetu-zor, Ilunbezor, Opilarin, zada, saraya*. Lan au gure *Euskera*'n argitaratuko da.

II.—Azkue jaunak irakuñi dizkigu Mendiburu'n arkitu dituen adizkerak: *de conjugación remota; de flexiones receptivas; de flexiones condicionales; de flexiones de imperativo* izendatzen ditu berak.

III.—Aita Intza'k irakuñi digu Napañoa'ko Elizbarutirako egiten ari dan *Kristau-Ikasbidea*: Gotzai jaunak agindu diyo.

IV.—*Euskeraren adiskideak* pozik ikusi ditu Euskaltzaindiak ta bere Batzar-Nagusiya agurtu.

Euskaltzaindiak ikustaldi atsegiña egin diyo bai Gotzai jaunari ta Aldundi-Buru jaunari.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi auxe.